

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Euskararen eskubideak komunikabideetanAnder Ramos, Ainize Sanchez, Iera Arantzamendi eta Urtza Alkorta
(Ondarroako EHEren izenean)

Euskal herritarrek garenez, eta euskaldun sentitzen garenean, Euskal Herrian Euskaraz bizi nahi dugu.

Euskal Herriko lurralde historiko batzuetan euskara hizkuntza ofiziala izan arren, sarritan ez dira hizkuntza eskubide hauek bermatzen, eta zer esanik beste lurralde historikoetan.

Adibide batzuekin ikusteko, komunikabideei so egitea besterik ez dugu: esaterako, hainbat egunkari ikus ditzakegu salmenta tokietan: *Gara*, EGUNKARIA,*Deia*, *El Correo*, *La Razon*, *El Pais*; horietatik guztietatik, bakarra da euskara hutsean argitaratzen dena: EUSKALDUNON EGUNKARIA.

Euskal Herri mailan saltzen diren egunkari batzuk gaztelania erabiltzen dute euskara baino gehiago, eta oraindik gehiago dira gaztelera hutsezkoak, nahiz eta Euskal Herri mailan atera.

Bestalde, telebista programa eta irratiei begiratzen badiegu ere, ikus dezakegu horrelakorik.

EITBn, adibidez, 2000 urteko plangintza estrategikoan, hedabide berrietan euskararen presentzia %50ekoa izango zela agertzen zen arren, EITB SAT eta Canal Vascoren kasuetan horrelakorik ez da bete.

Beste irriti eta telebista kate autonomiko askok ere gaztelania erabiltzen du bere zereginetarako.

Hau guztia ikusi ondoren, ezinbestekotzat jotzen dugu egoera hau salatzea. Horregatik, Ondarroako Euskal Herrian Euskaraz taldekook egoera hau publikoki salatzen dugu.

Hitza izan bedi arma bakarra


Ibon Usandizaga Elizegi • BILBO

Alderdi politikoetako jaun-andreak, go-goeta egin ezazue. Zorionez, gizakiok entzuteko, elkar ulertzeko eta elkarriketan ibiltzeko gaitasuna daukagu. *Hitza*

izan bedi gure artean herrialde honetan erabiltzen den arma bakarra.

Arazoen soluzioak gizarte honetan bizi garen gizon-emakumeek elkar ulertzearekin lortzen dira. Hitz egin dezagun, bestearen posizioa ulertzen saia gaitzen. Aurkari politikoarekin tolerantzia eta begirunea izan ditzagun. Ahalegindu gaitzen, har dezagun konpromiso hori, ausartak izan gaitzen. Onar dezagun Euskal Herrian daukaguna gatazka politikoa dela, zein luzaro irauten ari den eta bizi gehiegi eraman dituen. Gero eta arnasezinagoa den giro hau mantentzeko nora garamatza? Gatazka guztietan bezala, *elkarriketa* da bidea. Hitz egin dezagun eta elkarri entzun diezaiogun. Gora Euskal Herria Askatuta eta Bakean!

montxo



galdeiozu... ?



OSKAR GOÑI

Udalbiltzaren Batzorde Eragilearen koordinatzailea

Datozen udal hauteskundeetan ezker abertzaleak parte hartzerik ez badu, zer gertatuko da Udalbiltzarekin?

Xabier Aranburu (Azpeitia)

Datozen udal hauteskundeetan zer gertatuko den ezin da jakin oraindik zehatz-mehatz. Hala ere, Udalbiltza osatzen dugunok gure nazio instituzioak ordezkari bat izango duela argi dugu. Nolanahi ere, Udalbiltzaren azaroaren 23ko azken batzar orokorrean adostu bezala, udaberriaren ezohiko batzar bat egingo da afera hau tratatzeko, eta beharrezkoak izan daitezkeen pausoak zehazteko. Ziur gara Udalbiltzaren helburuak eta egitasmoak bermatzeko gai izango garela.

Abenduaren 10etik aurrera **Pantxoa Carrere • Kantaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak helbide honetara. galdeiozu@egunkaria.com

hirusta



Joseba Otondo

Egun bereziak

Hara! Egutegian begiratu eta eguna gorri azpimarkatua agertzen da gaur. Ez dut egundaino ulertu ordu aldaketarena non arraio erabakitzen den, egun bereziak edo besta egunak nork izendatzen dituen ulertzen ez dudana bezala. Nafarroaren eguna, Xabierko Frantziskoren eguna. Patxi lagunendako. Nahiz eta egia erran inongo loturarik ez ikusi Franzisko eta Patxiren artean. Hori ere hor nonbait erabakiko zuten, ni hautesle potentziala bertzerik ez naiz.Egun berezi hauek, oro har, besta egun bertzerik ez dira, hau da, soldatapeko lanerat joan gabe egoteko egunak. Alta, barrideak lanean daudela ikusi eta hara! Horiek, bistan denez, ez dira gu, zeren bertzenaz besta eguna bailukete. Hoberenera, *giputxiak* tribuen arteko umore aborigenean; makurrenera, *baskoak* eta *gu*, erran nahi baita batetik inbasore, indarkeriazale eta *Luziferzaleak* eta bertzetik nafar, foruzale

eta espainiazaleak. Edozein modutara, denak erromaniko apostoliko, Loiolako Inazio eta Xabierko Frantzisko, sorginak beti zisko.

Zinezko nafarrak Tuterarat, alderdiaren besta eguna baitute. Zinezko nafarrak Foruen monumentu aitzinerat, Nafarren Biltzarra baitute. Orain mendebaldean ere nafarrak bai omen ditugu, hauek ere besta ospakizunen batean hain segur. Harrikeriak bezala, historia-aren harrobian jo eta su. Dena Foru Hobekuntzaren pakete berean, deus ere galdegin gabe etxean, hori zoria! Gaurkoa halaberean euskararen eguna.

Egun paregabea merkataritza gunen handi batera joateko, euro zenbait gastatzeko. Horrela, produktzioan emanen ez dudana denbora kontsumoan emanen dut. Nahiz eta salbuespen gisa, akaso, lanerat joanen naizen eta hala deliberatzen dudalarik besta eguna hartuko. Bizkitartean, faborez, jarrai argia ematen.